

Ortzi Garmendia Jauregi

B maila • 1 aipamena

Ni Ortzi Garmendia Jauregi naiz, zaldibiarra, eta DBH3 maila egiten ari naiz. Asko gustatzen zait mota guztietako kirolak praktikatzea eta Ordiziako futbol eskolan nabil. Oso txikitatik ezagutu dut bertsoen mundua, batez ere, nire aitaren zaletasunagatik. Orain dela hiru urte hasi nintzen bertsoan eta oraindik ere segitzen dut. Orain arte hainbat bertso txapelketatan parte hartu dut, eta horietako batzuetan saria ere lortu dut. Adibidez, Lazkao Txiki bertsopaper lehiaketan, bi aldiz Eskolarteko Bertsopaper Lehiaketan eta oraingoan honetan. Niri bai idatzizko eta bai bat-bateko bertsoak abestea asko guztatzen zait, batez ere, nire gustura geratzen zaizkidanean.



HAU MUNDUA!

1.

Mundu honetan eragin degu
Okerreko egoera
Hainbat arazo sortuz jadanik
Ezin bueltatu atzera
Egoera beltz ta munduaren
Biziraupena behera
Pentsatutako teori oro
Guazen praktikan jartzera

2.

Zenbait arazok, zenbait gatazkak
Denoï eragin digute
Batzuk nahi gabe besteak nahita
Sortuaz hamaika sute
Basoak erre eta birrintzen
Gabiltza gu urtez urte
Animali ta espeziek zer
Pentsatuko ote dute

BERTSOAK

3.

Hainbat Itsaso ta ozeano
Petrolio ta plastiko
Bertako arrai eta piztiek
Hiltzerik ez dute nahiko
Gure jarrera aldatu nahian
Ez bagara hasten tinko
Arraina bera azkenerako
Itsasoan bertan ito

4.

Glaziarretan hartz zuri eta
Pingüino denak batera
Eta gu hauen etxeak hautsiz
Lasai bagoaz ohera
Hemen ezin da ezer aldatu
behintzat nere arbera
Kontzientzia urtzen badoa
Glaziarrekin batera

5.

Zein ikerketa, zein bilaketa
Ingurua aztertzeke
Nahikoa lanik ez dugu egin
Lurra garbi mantentzeke
Baina hau hemen bukatzen denik
Etzenuten ba usteko
Orain Martera iritsi gera
Berriz zerotik hasteko

6.

Gure planeta salbatu nahian
Hainbat plan sortu ditugu
Lehen izorratu genuen dena
Eremu eta inguru
Bakoitzak bere lan ta alea
Jartzea dugu helburu
Indarrak hortan batuez gero
Nolabat lortuko dugu